

Fiskalizazio Txostena

Informe de Fiscalización

**Bizkaiko Lurralde Historikoaren
Kontu Orokorra:
II. Atala - Enpresa-Sektore Publikoa**

**Cuenta General del Territorio Histórico
de Bizkaia:
Tomo II - Sector Público Empresarial**

2012





AURKIBIDEA / ÍNDICE

LABURDURAK	5
I. SARRERA	7
II IRITZIA	9
II.1 Legea betetzeari buruzko iritzia	9
II.2 Kontuei buruzko iritzia.....	9
III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK	10
III.1 Aurrekontua	10
III.2 Ondasun eta zerbitzuen kontratazioa	11
III.3 Langileria-gastuak.....	12
III.4 Berankortasuna	13
IV. ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN ALDERDI FINANTZARIOAK	14
V. ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK	16
V.1 Foru Enpresen Erakunde Publikoen Kontuak	16
V.2 Foru Elkarte Merkataritzakoen Kontuak	17
ALEGAZIOAK	23
ABREVIATURAS	31
I. INTRODUCCIÓN	33
II. OPINIÓN	35
II.1 Opinión sobre el cumplimiento de legalidad	35
II.2 Opinión sobre las Cuentas	35
III. CONSIDERACIONES SOBRE LOS SISTEMAS DE CONTROL INTERNO Y PROCEDIMIENTOS DE GESTIÓN	36
III.1 Presupuesto	36
III.2 Contratación de bienes y servicios	37
III.3 Gastos de personal	38
III.4 Morosidad	39



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

IV. ASPECTOS FINANCIEROS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL	40
V. CUENTAS DEL SECTOR PÚBLICO EMPRESARIAL	43
V.1 Cuentas de las Entidades Públicas Empresariales Forales	43
V.2 Cuentas de las Sociedades Mercantiles Forales.....	44
ANEXOS	49
A.1 Inmovilizado intangible y material	49
A.2 Inversiones inmobiliarias	50
A.3 Inversiones en empresas del grupo y asociadas a largo plazo	51
A.4 Inversiones financieras a largo plazo	53
A.5 Existencias	54
A.6 Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar	56
A.7 Fondos propios	56
A.8 Subvenciones, donaciones y legados recibidos	58
A.9 Provisiones a largo plazo	58
A.10 Otras deudas a corto plazo, acreedores comerciales y deudas grupo.....	60
A.11 Endeudamiento y gastos financieros	61
A.12 Aavales.....	62
A.13 Gastos de personal	62
A.14 Aprovisionamientos y otros gastos de explotación	64
A.15 Ingresos de explotación	66
A.16 Análisis de contratación	68
ALEGACIONES	71

Vitoria-Gasteiz, 2014ko otsailaren 27a

Vitoria-Gasteiz, 27 de febrero 2014



LABURDURAK

BAO	Bizkaiko Aldizkari Ofiziala.
BEZ	Balio Erantsiaren gaineko zerga.
BFA	Bizkaiko Foru Aldundia.
BLH	Bizkaiko lurralde historikoa.
BOE	Estatuko Aldizkari Ofiziala.
DOUE	Europar Batasuneko Aldizkari Ofiziala.
EDL	Errege Dekretu Legea.
EHJAN	Euskal Herriko Justizia Auzitegi Gorena.
ELA	Estatuko Loteriak eta Apustuak.
FA	Foru Araua.
HKEE	Herri-Kontuen Euskal Epaitegia.
SPKLTB	3/2011 Legegintzazko Errege Dekretua, azaroaren 14koa, Sektore Publikoaren Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategina onesten duena.





I. SARRERA

Herri-Kontuen Euskal Epaitegiak (HKEE) otsailaren 5eko 1/1988 Legean eta 2013rako Lanerako Programan erabakitakoari jarraiki, Bizkaiko lurralde historikoaren 2012ko ekitaldiaren Kontu Orokorraren fiskalizazioa mamitu du.

Bizkaiko lurralde historikoaren Kontu Orokorra honako kontu hauek osatzen dute: Bizkaiko Foru Aldundiaren kontuek (aurrerantzean BFA), foru erakunde autonomoen kontuek, foru enpresen erakunde publikoen kontuek eta foru elkarte merkataritzakoen kontuek. Aurrekontuen 5/2006 Foru Arau Orokorrak bi ataletan bereizten du foru sektore publikoa: administrazio sektore publikoa batetik (Bizkaiko Foru Aldundia eta foru erakunde autonomoak) eta Enpresa-Sektore publikoa bestetik (foru enpresen erakunde publikoak eta merkataritzako foru sozietateak); hori dela eta, HKEEk fiskalizazio txostena bi ataletan egituratu du: I, administrazio sektore publikoari dagokiona eta II, Enpresa-Sektore publikoarentzat.

BLH – Enpresa-Sektore Publikoaren Kontu Orokorraren fiskalizazio txostenaren atal honek ondoko alderdiak besarkatzen ditu:

- Legezkoak: Honako atal hauetan: aurrekontua, zorpetzea eta finantza eragiketak, langileria, obren kontratazioa, erosketa eta zerbitzuak, diru-laguntzen emakida eta zuzenbide publikoko sarrerei buruzko arautegia.
- Kontularitzakoak: Foru enpresa-erakunde publikoen eta merkataritzako foru sozietateen kontuak ezargarriak diren kontularitzako printzipioen arabera mamitu diren aztertuko dugu. Enpresen Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietate guztiek euren kontuei dagokienez, kanpoko enpresek egindako finantza-auditoriako eta aurrekontua betetzeari buruzko txostenak bideratu dituzte eta HKEE honek aintzat hartu ditu horiek guztiak bere lana egiteko orduan.
- Enpresa-Sektore publikoaren alderdi finantzarioen azterketa.
- Lanaren zabalak ez du gastuaren eraginkortasun eta efizientziari buruzko azterlanik besarkatzen. Nolanahi ere, azaleratutako hutsak “Kudeaketaren alderdiak eta Gomendioak” idazpuruan xehetasunez jasoko ditugu.

BLHren Enpresa-Sektore Publikoa honako hauek osatzen dute:

- Enpresa-erakunde publikoak:

Entitatea	Helburua
1. Estatuaren Loteriak eta Apustuak, Bizkaiko Ordezkaritza.....	Bizkaian Estatuaren Loteria eta Apustu Erakunde Nazionalaren ordezkaritza darama.
2. Bizkaiko Tutoretza Erakundea.....	EBLHn bizi diren legez ezgaitutako zaharren tutoretza egiteko ardura, eta aldundiak tutoretzapean dituen adingabeen ondasunak administratzeko ardura du.
3. BizkaikOA	Kultur ondarea zabaltzera zuzendutako jardueren kudeaketa, museoen eta azpiegituren kudeaketa osoa.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

- Foru Merkataritza Sozietateen Kontuak:

Sozietatea	Partaidetza %	Sozietatearen helburua
1. Aparkabisa, SA.....	79,52	Garraio zentroa eta kamioen aparkalekua.
2. Azpiegiturak, SA.....	100	Era guztietako azpiegituren obra publikoak proiektatu, eraiki, zaindu eta ustiatzea.
3. Bizkaiko Basalan, SA.....	100	Basoko lanak eta natura zaintzeko lanak egitea.
4. Beaz, SA.....	100	Enpresen lehiakortasuna garatu eta sustatzea, Bizkaia lurralde berritzaile, sortzaile, dinamiko eta ekintzailea bihurtzeko.
5. Euskalduna Jauregia, SA.....	100	Musika eta kongresu jauregia eraikitzea eta kudeatzea.
6. Garbiker, SA.....	100	Hondakin solidoak tratatzea.
7. Bizkaiko Hegoaldeko Akzesibilitatea, SA..... (Interbiak)	100	Bide azpiegiturak eraikitzea, zaintzea eta haiei buruzko azterlanak eta proiektuak egitea.
8. Lantik, SA.....	100	Foru administrazioaren informatika zerbitzuak.
9. Seed Capital de Bizkaia, SA.....	50,64	Foru administrazioaren informatika zerbitzuak.
10. Zugaztel, SA.....	100	Grabazioa, eskaneatzea eta call center-a.

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

1. Lantik, SAK berariaz gaitutako enpresa batekin txandakako kontratueterako 6 langileren hautaketa kontratatu du; enpresa honek deialdiari publikotasuna eman eta sailkatutako izangaien azken zerrenda bat proposatzen du; ordea, ez du justifikatzen sailkapen hori egiteko baliatutako irizpidea. Kontratutako enpresak ez du aurkezten hautagaiak aukeratzekoan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete dituztela ziurtatzeko dokumentaziorik, eta, ondorioz, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek bete diren.

KONTRATAZIOA

2. Bizkaiko Basalan, SAK errepideetarako gatz hornidura kontratatu du, 2012ko ekitaldian 105.606 euroen gastua izan duena; ordea, ez du ondasun eta zerbitzuak kontratatzeke dagokion espedientea izapidetu, publikotasun eta lehia printzipioak urratuz.
3. Euskalduna Jauregia, SAK besaulkien hornidura esleitu du 589.966 euroren zenbatekoan eta lizitazioa kontratugilearen profilean argitaratu du; ez, ordea, dagozkion aldizkari ofizialetan (DOUE, BAO eta BOEn); horrek SPKLTBren 142. artikulua urratzen du.

Epaitegi honen ustetan, Bizkaiko lurralde historikoaren Enpresa-Sektore Publikoa osatzen duten erakundeek, aurreko idatz-zatietan aipatutako lege hausteak alde batera, zuzentasunez bete dute 2012ko ekitaldian ekonomia-finantzaren jardura arautzen duen lege arautegia.

II.2 KONTUEI BURUZKO IRITZIA

Azpiegiturak, SA

1. Higiezin merkatuak bizi duen krisia aintzat hartuta, zalantza dago izakin eta higiezin ibilgetuarekin lotutako aktiboak gauzatzeari dagokionez, hurrenez hurren 119,9 eta 19,3 milioi euroren zenbatekoan.

Epaitegi honen iritzira, 1. paragrafoan aipatutako zalantza salbuetsita, Bizkaiko Lurralde Historikoaren Enpresa-Sektore Publikoa osatzen duten erakunde eta sozietateen 2012ko ekitaldiaren urteko kontuek alderdi esanguratsu guztietan abenduaren 31n ondarearen eta finantza egoeraren isla zuzena erakusten dute; baita, data horretan amaitutako urteko ekitaldiari dagozkion bere eragiketen eta eskudiruzko fluxuen emaitzena ere, ezargarria den finantza informazioaren arau-esparruaren arabera eta, zehazki, bertan jasotako kontularitzako printzipio eta irizpideen arabera.



Herri-Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE KONTROLERAKO SISTEMEI ETA KUDEAKETA PROZEDUREI BURUZKO IRIZPENAK

Atal honetan ekonomia-finantza jarduera arautzen duten printzipioak gehiegi eragiten ez dituzten akatsak ez ezik, kudeaketa hobetzeko azpimarratu nahi diren prozedurazko alderdiak ere azaleratu dira.

III.1 AURREKONTUA

- Garbiker, SAREN aurrekontuan ez du urteanitzeko izaeradun inbertsioen eranskina barne hartzen, aurrekontuen edukia arautzen duen Aurrekontu Orokorren 5/2006 Foru Araudiaren 39.2 artikulua agintzen duen legez.

2012ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorrean Sozietateak 2012ko ekitaldi itxieran dituen inbertsio konpromisoen berri ematen da, 6,6 milioi euroena, tratamendu mekaniko biologikoa egiteko instalazioari dagozkionak. BFAk kapital zabalkuntzarako aktibo finantzarioetan konpromiso kredituak ditu erregistratuak, inbertsio horiek finantzatzea xede dutenak.

- Interbiak, SAREN aurrekontuak ez du urteanitzeko izaeradun inbertsioen eranskina barne hartzen, aurrekontuen edukia arautzen duen Aurrekontu Orokorren 5/2006 Foru Arauaren 39.2 artikulua agintzen duen legez.

2012ko abenduaren 31n Sozietateak 105,1 milioi euroren inbertsio konpromisoak ditu.

Konpromiso horiek bi obraren esleipenari dagozkio, Zornotza-Muxika tarteari eta Bermeoko saihesbideari; 2012ko ekitaldi itxieran 101,8 milioi euroren etorkizuneko konpromisoak dituzte.

Obra hauek Sozietateari 2012ko maiatzaren 17ko Diputatuen Kontseiluak agindu zizkion. Hori dela eta, BFAREN konpromiso kredituen aurrekontuak kapital zabalkuntzetarako finantza aktiboen bariozian diru-izendapena jaso du, xedea Sozietatearen inbertsioak finantzatzea delarik eta 2012ko ekitaldi itxieran BFAREN Kontuak Interbiak, SAREN aldeko konpromiso kredituak besarkatzen ditu, 139,1 milioi eurorenak.

Gure iritzira, nahiz sozietateen inbertsio konpromisoen finantzaketa BFAREN konpromiso kredituetan barne hartua dagoen, Sozietateen aurrekontuek urteanitzeko izaera duten inbertsioen eranskinetan jaso egin behar dituzte ekitaldian esleitu asmo diren jarduera haiek, egikaritze geroko ekitaldietan izango dutenak.



III.2 ONDASUN ETA ZERBITZUEN KONTRATAZIOA

Enpresa-Sektore Publikoaren erakunde eta sozietateek izapidetutako kontratazio espedienteak aztertzetik (ikus A.16 eranskina) honako alderdi hauek azpimarratu ditugu:

Alderdi orokorrak

Enpresa-Sektore Publikoaren erakunde eta sozietateetan, Bizkaikoa, Interbiak, SA eta Lantik, SA salbuetsita, kontratugilearen profila euskarritzen duen informatika sistemak ez du bertan jasotako informazioaren hedapen publikoa zein unetan abiarazi den egiaztatzeko bide emango duen gailurik. Nolanahi den ere, Bizkaiko ELAren Ordezkaritza erakundeak eta Seed Capital de Bizkaia, SA sozietateak ez dute ondasun eta zerbitzuen kontrataziorik egin.

Interbiak, SA

Hiru zerbitzu espediente, baldintzen pleguen idazkerarekin, errepide zatiak ustiatzeko baldintzak bideratu eta zehaztearekin eta obra espediente batekin loturikoak, 2009an guztira 61,2 milioi euroren zenbatekoan esleitutakoak, 2012ko ekitaldian justifikaziorik gabe urtebete inguruko atzerapena izan dute egitekoak betetzean eta ez dituzte kontratuen epe luzaketak onartu.

Zugaztel, SA

- BFAren dokumentazioa garbitu eta jaso, garraiatu eta entrega espedienteak, 2012ko ekitaldian 95.730 euroren zenbatekoan esleitu zirenak, kontratugilearen profilean 8 eguneko epean argitaratu dira, SPKLTBren 164.2 artikulua agintzen duen 10 eguneko epean beharrean.
- 2011n contact center plataforma gaurkotzeko 222.960 euroan esleitutako kontratu bat, aurreikusitako amaiera data 2011ko abenduaren 31n zuena, 2013ko maiatzean jaso zen, kontratuaren epea luzatzea onartu gabe.
- 2011ko kontratu baten egikaritzak, 100.300 euroan esleitutako, bi hilabeteko atzeraldia izan du aurreikusitako epearekiko, kontratuaren epea luzatzea onartu ez delarik.



Ondotik adierazitako erakunde eta sozietateetan eta azaldutako gastu bakoitzari dagokionez, komenigarria litzateke horiek aztertzea lehia printzipioak aplikatzeko, izan ere gastu homogeneoak, aurreikusgarriak eta ia guztiak hornitzaile bakar batekin kontraturikoak dira.

		Euroak milakotan (BEZa barne)
SOZIETATEA	Kontratua	
BizkaiKOA	Publizitatea	29
	Arkeologia-indusketak	33
	Museoko piezak kontrolatu eta katalogatzea	34
	Gidatutako bisiten programak (2 hornitzaile)	78
	Erakusketetarako piezen garraioa	24
	Museoetan mantentze lanak	63
	Erakusketetan lanak	35
Bizkaiko Basalan, SA	Langileak hautatzeko zerbitzuak	25

- Interbiak, SAK 2002. urteaz geroztik telefonia kontratu bat dauka 2012ko ekitaldian 67.497 euroren gastua izan duena; komenigarria litzateke dagokion lizitazioa bideratzea.
- Zugaztel, SAK 2012. urtean 35.254 euroren telefonia gastuak kontratatu ditu; komenigarria litzateke dagokion lizitazioa bideratzea.

III.3 LANGILERIA GASTUAK

Antzinatasun kontzeptuaren arabeko ordainsariak kalkulatzeko tratamendu bereziak daudela ikusi dugu. Aparkabisa, SAN kontzeptu honek % 3,5 egiten du 2007ko soldataren gainean hirurteko bakoitzerako eta Garbiker, SAN biurtekoak ordaintzen dira, gehienera hiru, eta bosturtekoak mugarik gabe. Gomendagarria da Enpresa-Sektore publikoari ezargarriak zaizkion ordainsariak arautu eta homogeneizatzea.

III.4 BERANKORTASUNA

Uztailaren 5eko 15/2010 Legeak abenduaren 29ko 3/2004 Legea aldatzen du, merkataritzako eragiketetan berankortasunaren aurkako neurriak ezartzen dituena; Lege horrek Xedapen gehigarri hirugarrenean agintzen du sozietateek berariaz argitaratu beharko dutela haien urteko kontuen Txostenean hornitzaileei ordainketak egiteko epeei buruzko informazioa.

Hona hemen legezko epea eta kopuruak gainditu dituzten enpresa-erakunde publikoak eta foru sozietateak, batez bestean gainditutako epe eta zenbatekoarekin:

SOZIETATEA	Gainditutako epea	Euroak milakotan
	Egunak	Zenbatekoa
Bizkaiko Tutoretza Erakundea	8	101
Aparkabisa, SA.....	201	1.149
Basalan, S.A.	30	587
Euskalduna Jauregia, SA.....	13	245
Lantik, S.A.	28	570
Zugaztel, S.A.....	14	1.548

Aparkabisa, SAren kasuan, ordainketa epea gainditu duen zenbatekoaren guztizkotik 1 milioi euro Zierbenan kamioien aparkalekuko instalakuntzak dauden lursailen emakida-ordainketei dagokie, Bilboko Portuak ordaindu beharrekoa. Atzeraldi honek 2012ko ekitaldian 20.807 euroren berandutza interesak ordaindu behar izatea eragin du.



IV. ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN ALDERDI FINANTZARIOAK

Epe luzeko finantzaketa

- 2012ko urtarrilaren 1ean guztira 656,1 milioi euroren saldoa zuten Funts Propioek honako bariazio hauek erakutsi dituzte 2012ko ekitaldian (ikus A.7 eranskina):
 - BFAk harpidetutako kapital zabalkuntza eta murrizketak, guztira 42,8 milioi euroren zenbateko garbiarekin (42,2 milioi euroren zabalkuntzak diruzko ekarpenetan, Lantik, SAn kapital sozialaren 10 milioi euroren murrizketa dirutan eta 10,6 milioi euroren zabalkuntza espeziezko ekarpenekin).
 - Erakunde eta sozietateen galerak berdintzeko BFAk guztira 13,4 milioi euroren ekarpenak egin ditu; 2012ko ekitaldian galerak guztira 82,7 milioi eurorenak izan dira.

BFAk 56,2 milioi euro eman ditu 2012ko ekitaldian Enpresa-Sektore Publikoaren Funts Propioetarako. Kopuru honek Funts Propioen hasierako saldoaren gainean % 8,6 egiten du.

- BFAk jasotako Diru-laguntza, dohaintza eta legatuak 3,5 milioi eurorenak izan dira (ikus A.8 eranskina).
- Zorpetzea 2012ko urtean 12,9 milioi euro murriztu da (% 1,2) eta 1.039,3 milioi eurorena izatetik 1.026,4 milioi eurorena izatera pasa da; hortik kopuru handiena Interbiak, SARI dagokio, azpiegiturak egiteko. Kopuru honetatik Egoeraren Balantzeetan epe luzera erregistratutako zenbatekoak 942,5 milioi euro egin ditu (ikus A.11 eranskina).

Epe laburreko finantzaketa

Sozietateen epe laburreko finantza egoerak (Aktibo Arrunta-Pasibo Arrunta) epe laburrera pasiboari aurre egiteko aktiboaren nahikotasuna erakusten du, ondoko sozietateetan izan ezik:

- Aparkabisa, SA: aktibo arrunta pasibo arrunta baino txikiagoa da 3,3 milioi euroren zenbatekoan. Azken ekitaldietan gertatu den egoera hau epe laburreko kreditu kontu baten urteko berritzearekin lotua dago, 2012ko ekitaldi itxieran 1,9 milioi euroren saldoa zuena eta 2013rako berri dena; horrek erakusten du ez dituela diruzaintzako uneko beharrak sortu.
- Azpiegiturak, SA Nahiz aktibo arruntak pasibo arrunta 112,8 milioi euroan gainditzen duen, gogoan izan behar da epe laburrean izakinak gauzatzeari buruz dagoen zalantza, 119,9 milioi euroan balioztatuak daudenak.
- Garbiker, SA: aktibo arrunta pasibo arrunta baino txikiagoa da 1,7 milioi euroren zenbatekoan 2012ko ekitaldi itxieran. 2013ko ekitaldian Sozietateak hondakin lantegi bat saldu zuen, finantzaketa defizita bideratu duena.

Inbertsioak

Gauzatutako inbertsioen atalean 2012ko ekitaldiko ibilgetuko altak gailentzen dira, guztira 79,8 milioi euroren zenbatekoan (ikus A.1 eranskina). Zenbateko honetatik, % 67,7 Garbiker, SAK eta Interbiak, SAK ekitaldian azpiegituretan egindako inbertsioei dagokie. 2012ko ekitaldian egindako inbertsioak nabarmen jaitsi dira 2011ko ekitaldikoekiko (166,6 milioi euro) eta 2010ekoekiko (349 milioi euro).

Ekitaldiaren emaitza

Enpresa-Sektore Publikoa osatzen duten enpresa-erakunde eta sozietate publikoek guztira 2012ko ekitaldian 82,7 milioi euroren galerak izan dituzte (Bizkaiko ELAren ordezkartza eta Basalan, SAK irabaziak izan dituzte eta Lantik, SA eta Zugaztel, SAK zeroko emaitza izan dute). Hona hemen Galera-Irabazien Kontua interpretatuzetik azpimarratu diren atalak:

- Galera guztietatik 60 milioi euro Interbiak, SAri dagozkio. Sozietate honen galerak areagotu egin dira 2012ko ekitaldian (31,9 milioi euro 2011n), batik bat, ondoko arrazoi hauengatik:
 - Metropoli Hegoaldeko Saihesbidea abian hasi izanaren ondorioz, obra finantzatzeko interesak kapitalizatzeari utzi zaio eta horrek 2011ko ekitaldiarekiko 25,3 milioi euroren gastu handiagoa eragin du.
 - Ekitaldiko ibilgetua amortizatzeko zuzkidurak bariazioa izan du 2012ko ekitaldian. Nolanahi ere, autobide eta tuneletan inbertsioetan jasotako hainbat elementuren balio-bizitzaren balioespenean bariazioa izan da eta horrek amortizazioa 21,5 milioi euro murriztu du aurreko ekitaldietan balioetsitako bizitzari dagokionez. Murriztapen hau berdintzen da aipatutako saihesbidea 2011ko erdi aldera abian jarri izanak eragindako amortizazioarekin.
- 2012ko ekitaldian Enpresa-Sektore Publikoa ustiatzetik eratorritako diru-sarrerak guztira 207,3 milioi euro egin dituzte. Kopuru honetatik % 71,8, 148,9 milioi euroren zenbatekoan, atxikitako enpresei emandako zerbitzuari dagokio, BFARI nagusiki. Ustia ketako sarrerak eskuratzeko atxikitako enpresekiko menpekotasun erabatekoa Basalan, SA, Lantik, SA, Lantik, SA, Zugaztel, SA eta Azpiegitureak, SAN gertatzen da, gizarte zerbitzuen jardueraren ondorioz eta Interbiak, SA BFarentzat egindako lanen ondorioz; gainerakoan ez da adierazgarria.
- Sozietate gehienetan Ekitaldiaren emaitza ia osorik bat dator Ustia ketaren emaitzarekin. Hainbat sozietatetan Emaitza Finantzarioa adierazgarria da eta, gainera, negatiboa:

SOZIETATEA	Euroak milakotan		
	Ustia ketaren emaitza	Emaitza finantzarioa	Ekitaldiaren emaitza
Aparkabisa, SA.....	(2.180)	(318)	(2.498)
Azpiegitureak, SA	(4.303)	(3.861)	(8.164)
Interbiak, SA	(14.785)	(45.263)	(60.048)

**V. ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOAREN KONTUAK****V.1 FORU ENPRESEN ERAKUNDE PUBLIKOEN KONTUAK****A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N**

Euroak milakotan

	Eransk.	ELA		Tutoretza Erakundea		BizkaiKOA	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA		2.097	2.142	213	252	13.153	13.352
Ibilgetu ukiezina.....	A1	6	1.284	5	2	11	13.153
Ibilgetu materiala.....	A1	2.091	858	208	250	13.142	199
AKTIBO ARRUNTA		1.262	865	377	386	1.783	1.173
Izakinak.....	A5	-	-	14	10	-	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	A6	154	170	86	208	699	480
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		-	-	-	-	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		3	2	7	-	48	3
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.		1.105	693	270	168	1.036	690
AKTIBOA GUZTIRA		3.359	3.007	590	638	14.936	14.525
ONDARE GARBIA		2.622	2.714	213	252	14.222	14.120
Eskrituran jasotako kapitala.....		301	301	-	-	-	-
Erretserbak.....		46	38	-	-	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....		-	-	2.185	2.134	3.242	2.441
Ekitaldiaren emaitza.....		62	81	(2.185)	(2.134)	(3.242)	(2.441)
Berezko funtsak	A7	409	420	-	-	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	A8	2.213	2.294	213	252	14.222	14.120
PASIBO EZ ARRUNTA		56	-	-	-	46	-
Epe luzeko hornidurak.....	A9	56	-	-	-	46	-
PASIBO ARRUNTA		681	293	377	386	668	405
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A10	1	6	-	-	4	-
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.....	A10	-	-	160	124	-	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk	A10	680	287	217	262	664	405
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		3.359	3.007	590	638	14.936	14.525

B. 2012 ETA 2011-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	ELA		Tutoretza Erakundea		BizkaiKOA	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	A15	1.179	1.243	-	-	171	66
Hornidurak.....	A14	-	-	(242)	(262)	(641)	(286)
Bestelako ustiaketa sarrerak.....	A15	17	14	-	-	3	-
Langileria-gastuak.....	A13	(970)	(1.003)	(1.400)	(1.397)	(945)	(656)
Bestelako ustiaketa gastuak.....	A14	(181)	(188)	(545)	(478)	(1.835)	(1.575)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A1	(69)	(75)	(52)	(61)	(367)	(336)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea.....	A8	81	81	52	61	367	336
Narriadura eta ibilget. erag. emait.eta bste.....		1	3	-	-	-	-
Ustia ketaren emaitza		58	75	(2.187)	(2.137)	(3.247)	(2.451)
Sarrera finantzarioak.....		4	6	2	3	5	10
Emaitza finantzarioa		4	6	2	3	5	10
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA							
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA		62	81	(2.185)	(2.134)	(3.242)	(2.441)
EKITALDIAREN EMAITZA		62	81	(2.185)	(2.134)	(3.242)	(2.441)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

V.2 FORU ELKARTE MERKATARITZAKOEN KONTUAK

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Eransk.	Aparakabisa		Azpiegiturak		Basalan		Beaz	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA		31.706	33.138	248.885	238.245	751	556	1.031	232
Ibilgetu ukiezina.....	A1	-	-	621	630	-	-	11	15
Ibilgetu materiala.....	A1	448	468	181.951	182.700	751	556	926	100
Ibilgetuko inbertsioak.....	A2	31.258	32.670	19.287	16.239	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz....	A3	-	-	44.138	35.795	-	-	50	50
Finantza inbertsioak epe luzera.....	A4	-	-	2.888	2.881	-	-	44	67
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		-	-	-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		812	525	137.356	173.906	2.004	2.583	7.010	9.409
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak		-	-	-	-	-	-	-	-
Izakinak.....	A5	-	-	119.910	144.707	18	35	-	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt....	A6	574	318	15.017	13.697	1.551	2.377	506	353
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab. ...		-	-	-	2.488	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		1	1	238	4.253	1	6	20	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		25	26	19	19	17	14	-	-
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz. ...		212	180	2.172	8.742	417	151	6.484	9.056
AKTIBOA GUZTIRA		32.518	33.663	386.241	412.151	2.755	3.139	8.041	9.641
ONDARE GARBIA		24.441	23.139	294.520	289.583	1.397	1.328	2.544	2.680
Eskrituran jasotako kapitala.....		50.891	49.391	331.725	318.411	950	950	3.201	3.201
Erretserbak.....		(128)	(128)	1	1	378	225	1	1
Aurreko ekitaldietako ondorioak.....		(23.824)	(24.429)	(30.872)	(24.605)	-	-	(686)	(686)
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....		-	-	967	1.000	-	-	3.900	4.200
Ekitaldiaren emaitza.....		(2.498)	(1.695)	(8.164)	(7.267)	69	153	(3.956)	(4.200)
Berezko funtsak	A7	24.441	23.139	293.657	287.540	1.397	1.328	2.460	2.516
Balio aldaketagatiko doiketak.....		-	-	(4.776)	(3.642)	-	-	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	A8	-	-	5.639	5.685	-	-	84	164
PASIBO EZ ARRUNTA		4.002	5.456	67.128	70.632	135	-	-	-
Epe luzeko hornidurak.....	A9	255	7	-	-	135	-	-	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	A11	3.486	5.196	62.702	66.612	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....		261	253	4.426	4.020	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		-	-	-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA		4.075	5.068	24.593	51.936	1.223	1.811	5.497	6.961
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	-	49	49	-	-	146	86
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.	A11	3.716	4.105	4.947	11.960	-	-	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A10	-	5	2.866	2.491	10	1	3.965	6.214
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab....	A10	-	-	243	2	-	-	728	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk .	A10	359	958	16.488	37.434	1.068	1.810	658	661
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		-	-	-	-	145	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		32.518	33.663	386.241	412.151	2.755	3.139	8.041	9.641



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Eransk.	Euskalduna J.		Garbiker		Interbiak	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA		66.839	58.851	82.738	58.976	1.088.676	1.100.294
lbilgetu ukiezina.....	A1	13	11	1.668	1.801	89	55
lbilgetu materiala.....	A1	66.826	58.840	76.517	52.067	1.088.561	1.100.213
lbilgetuko inbertsioak.....		-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz.....	A3	-	-	2.927	3.482	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	A4	-	-	1	1	26	26
Atzeratutako zergengatik aktiboak.....		-	-	1.625	1.625	-	-
AKTIBO ARRUNTA		12.260	11.384	10.558	22.285	103.236	143.367
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak...		-	-	-	-	-	-
Izakinak.....	A5	-	-	-	-	1	15.722
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	A6	1.562	1.890	4.930	5.210	26.254	23.454
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab.....		-	-	130	409	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		1.013	43	5	7.014	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		24	23	104	81	9	7
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.		9.661	9.428	5.389	9.571	76.972	104.184
AKTIBOA GUZTIRA		79.099	70.235	93.296	81.261	1.191.912	1.243.661
ONDARE GARBIA		75.280	66.131	44.926	34.287	187.753	231.830
Eskrituran jasotako kapitala.....		70.589	60.594	46.129	33.829	162.200	146.200
Erretsebak.....		144	151	844	844	117.035	117.043
Aurreko ekitaldietako ondorioak.....		(14.992)	(14.600)	(801)	-	(31.899)	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....		-	-	-	-	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....		(209)	(392)	(1.649)	(801)	(60.048)	(31.899)
Berezko funtsak	A7	55.532	45.753	44.523	33.872	187.288	231.344
Balio aldaketagatik doiketak.....		-	-	-	-	-	-
Diru-lag., dohaint. eta jasot. legat.....	A8	19.748	20.378	403	415	465	486
PASIBO EZ ARRUNTA		-	-	36.078	37.327	942.601	952.000
Epe luzeko hornidurak.....	A9	-	-	35.694	36.896	121	-
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.	A11	-	-	-	-	942.480	952.000
Epe luzeko bestel. zorrak.....		-	-	228	270	-	-
Atzeratutako zergengatik aktiboak.....		-	-	156	161	-	-
PASIBO ARRUNTA		3.819	4.104	12.292	9.647	61.558	59.831
Epe laburreko zuzkidurak.....		-	-	-	-	-	2.507
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.....	A11	-	-	-	-	28.209	19.580
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A10	1.734	1.937	9.234	6.791	7.303	14.097
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.....	A10	-	-	-	-	30	36
Merkat. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk	A10	2.085	2.167	3.058	2.856	26.016	23.611
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		-	-	-	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		79.099	70.235	93.296	81.261	1.191.912	1.243.661



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

A. EGOERAREN BALANTZEAK 2012 ETA 2011-KO ABENDUAREN 31-N

Euroak milakotan

	Eransk.	Lantik		Seed Capital		Zugaztel	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
AKTIBO EZ ARRUNTA		20.487	25.200	30	73	2.462	2.162
lbilgetu ukiezina.....	A1	7.552	10.833	12	17	372	23
lbilgetu materiala.....	A1	12.634	14.066	18	40	2.090	2.139
lbilgetuko inbertsioak.....		-	-	-	-	-	-
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/luz.....	A3	301	301	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe luzera.....	A4	-	-	-	16	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		-	-	-	-	-	-
AKTIBO ARRUNTA		32.976	46.051	486	499	2.212	1.819
Salmentarako gordetako aktibo ez arruntak.....		-	-	-	-	-	-
Izakinak.....	A5	79	55	-	-	-	-
Merkat zordunak eta kobratz bestel. knt.....	A6	13.885	12.287	272	385	452	523
Taldeko eta elkartut. enpres. inber. e/lab.....		-	-	-	-	-	-
Finantza inbertsioak epe laburrera.....		119	105	3	3	-	-
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		569	475	-	-	3	3
Eskud. eta b. aktibo likido baliokide batz.		18.324	33.129	211	111	1.757	1.293
AKTIBOA GUZTIRA		53.463	71.251	516	572	4.674	3.981
ONDARE GARBIA		39.511	57.680	292	319	3.672	3.191
Eskrituran jasotako kapitala.....		14.554	24.554	330	330	2.616	2.616
Erretserbak.....		2.739	2.552	-	-	(25)	(25)
Aurreko ekitaldietako ondorioak.....		-	-	(68)	(68)	-	-
Bazkideen beste ekarpen batzuk.....		-	-	834	804	-	-
Ekitaldiaren emaitza.....		-	192	(834)	(804)	-	-
Berezko funtsak	A7	17.293	27.298	262	262	2.591	2.591
Balio aldaketagatiko doiketak.....		-	-	-	-	-	-
Diru-laguntzak, dohain. eta jasot. legat.....	A8	22.218	30.382	30	57	1.081	600
PASIBO EZ ARRUNTA		931	862	-	-	54	56
Epe luzeko hornidurak.....	A9	931	862	-	-	54	56
Zorrak, kreditu erakundeekin epe luz.		-	-	-	-	-	-
Epe luzeko bestel. zorrak.....		-	-	-	-	-	-
Atzeratutako zergengatiko aktiboak.....		-	-	-	-	-	-
PASIBO ARRUNTA		13.021	12.709	224	253	948	734
Epe laburreko zuzkidurak.....		411	318	-	-	14	12
Kreditu erakundeekiko zorrak epe lab.		-	-	-	-	-	-
Epe laburreko bestel. zorrak.....	A10	2.015	988	-	-	100	12
Taldeko eta elkartut. enpres. zorrak e/lab.....	A10	-	-	38	-	128	-
Merkatar. hartz. eta kobr. bte kntu batzuk.....	A10	10.595	11.403	186	253	706	710
Aldizkakotzeak epe laburrera.....		-	-	-	-	-	-
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA GUZTIRA		53.463	71.251	516	572	4.674	3.981



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2012 ETA 2011-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	Aparakabisa		Azpiegiturak		Basalan		Beaz	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011	2012	2011
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	A15	3.456	3.794	89.496	72.278	6.614	5.339	32	12
Izakinen aldakuntza	A15	-	-	(21.265)	(587)	-	-	-	-
Aktiborako egindako lanak	A15	-	-	3.646	-	-	-	-	-
Hornidurak	A14	-	-	(62.761)	(63.895)	(1.098)	(888)	(1)	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	A15	-	-	1.461	963	-	-	457	190
Langileria-gastuak	A13	(2.355)	(2.379)	(3.933)	(4.509)	(3.640)	(3.075)	(2.673)	(3.051)
Bestelako ustiaketa gastuak	A14	(2.591)	(1.368)	(3.749)	(2.844)	(1.568)	(1.055)	(1.636)	(1.513)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A1,A2	(1.432)	(1.474)	(7.494)	(6.932)	(232)	(179)	(92)	(84)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea .	A8	706	-	296	276	-	-	44	84
Narriadura eta ibilget. erag. emait.....		-	-	-	(207)	-	5	(8)	-
Bestel. emaitzak eta gehiegizko zuzk.		36	29	-	615	(5)	3	(119)	80
Ustiaketaren emaitza		(2.180)	(1.398)	(4.303)	(4.842)	71	150	(3.996)	(4.282)
Sarrera finantzarioak.....		2	2	155	193	2	7	40	95
Finantza gastuak.....	A11	(320)	(299)	(2.930)	(2.991)	(4)	(2)	-	-
Narriadura eta i. fin. bester. emait.....		-	-	(1.086)	373	-	-	-	(13)
Emaitza finantzarioa		(318)	(297)	(3.861)	(2.425)	(2)	5	40	82
Emaitza zerga aurretik		(2.498)	(1.695)	(8.164)	(7.267)	69	155	(3.956)	(4.200)
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	-	-	-	(2)	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA									
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA		(2.498)	(1.695)	(8.164)	(7.267)	69	153	(3.956)	(4.200)
EKITALDIAREN EMAITZA		(2.498)	(1.695)	(8.164)	(7.267)	69	153	(3.956)	(4.200)

	Eransk.	Euskalduna J.		Garbiker		Interbiak	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
Negozio zifratik zenbateko garbia.....	A15	7.222	6.194	17.402	18.672	44.896	43.039
Izakinen aldakuntza		-	-	-	-	-	-
Aktiborako egindako lanak	A15	-	-	-	-	-	25.253
Hornidurak	A14	-	-	(10.208)	(10.309)	-	-
Bestelako ustiaketa sarrerak	A15	114	233	1.405	1.415	52.814	64.065
Langileria-gastuak	A13	(1.304)	(1.341)	(5.362)	(5.618)	(2.080)	(2.210)
Bestelako ustiaketa gastuak	A14	(5.701)	(5.016)	(2.913)	(2.946)	(71.335)	(80.027)
Ibilgetuaren amortizazioa.....	A1	(1.341)	(1.307)	(2.262)	(2.368)	(39.101)	(37.368)
Ibilgetu ez finantz. diru-lag. egoztea	A8	630	564	16	17	21	21
Ibilgetuko erag. eta horniduren gehieg. emaitzak		-	-	-	409	62	-
Beste emaitza batzuk		-	-	12	110	-	(1)
Ustiaketaren emaitza		(380)	(673)	(1.501)	(965)	(14.785)	12.772
Sarrera finantzarioak.....		171	281	101	231	593	1.143
Finantza gastuak.....	A11	-	-	(44)	(45)	(45.856)	(45.814)
Narriadura eta i. fin. bester. emait.....		-	-	(205)	(22)	-	-
Emaitza finantzarioa		171	281	(148)	164	(45.263)	(44.671)
Emaitza zerga aurretik		(209)	(392)	(1.649)	(801)	(60.048)	(31.899)
Mozkinen gaineko zerga.....		-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA							
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOIA		(209)	(392)	(1.649)	(801)	(60.048)	(31.899)
EKITALDIAREN EMAITZA		(209)	(392)	(1.649)	(801)	(60.048)	(31.899)



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

B. 2012 ETA 2011-KO EKITALDIETAKO GALERA-IRABAZIEN KONTUAK

Euroak milakotan

	Eransk.	Lantik		Seed Capital		Zugaztel	
		2012	2011	2012	2011	2012	2011
Negozio zifratik zenbateko garbia	A15	49.203	51.831	207	267	5.004	5.055
Izakinen aldakuntza		-	-	-	-	-	-
Aktiborako egindako lanak		-	-	-	-	-	-
Hornidurak	A14	(17.093)	(18.325)	-	-	(2.473)	(2.443)
Bestelako ustiaketa sarrerak	A15	68	46	-	-	-	-
Langileria-gastuak	A13	(16.622)	(18.494)	(628)	(636)	(2.221)	(2.294)
Bestelako ustiaketa gastuak	A14	(11.996)	(10.699)	(415)	(437)	(275)	(289)
Ibilgetuaren amortizazioa	A1	(12.635)	(13.641)	(27)	(42)	(130)	(90)
Ibilgetu ez finantz. diru-lagun. egoztea	A8	10.315	10.823	27	42	86	47
Narriadura eta ibilget. erag. emait		16	(114)	-	-	-	-
Beste emaitza batzuk		(1.484)	(1.566)	-	-	-	1
Ustiaketaren emaitza		(228)	(139)	(836)	(806)	(9)	(13)
Sarrera finantzarioak		228	440	2	2	9	13
Finantza gastuak		-	-	-	-	-	-
Narriadura eta i. fin. bester. emait		-	(109)	-	-	-	-
Emaitza finantzarioa		228	331	2	2	9	13
Emaitza zerga aurretik		-	192	(834)	(804)	-	-
Mozkinen gaineko zerga		-	-	-	-	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA, ERAGIKETA							
JARRAITUETATIK ERATORRITAKOA		-	192	(834)	(804)	-	-
EKITALDIAREN EMAITZA		-	192	(834)	(804)	-	-



BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO 2012-KO KONTU OROKORRA FISKALIZATZEKO TXOSTENAREN AURREKO ALEGAZIOAK: II. LIBURUKIA - ENPRESA-SEKTORE PUBLIKOA

II. IRITZIA

II.1 LEGEA BETETZEARI BURUZKO IRITZIA

LANGILERIA

- Lantik, SAK enpresa espezializatu bat kontratatu du txandakako kontratueterako 6 langile hautatzeko. Enpresak deialdia argitaratu du eta sailkatutako hautagaien zerrenda proposatu du, baina ez du sailkapen hori egiteko erabilitako irizpiderik justifikatu. Enpresa kontratatuak ez du aurkeztu hautagaiak aukeratzekoan berdintasun-, meritu- eta gaitasun-baldintzak bete direla ziurtatzeko frogarik, eta, ondorioz, ezin izan da egiaztatu printzipio horiek bete diren.*

LANTIK-EN ALEGAZIOAK

Lantik, SAREN kontratazioak egin baino lehen, prentsan iragarkiak argitaratu dira, eta, ondorengo paragrafoetan ikusiko den bezala, guztiz bete dira bai Legea, baita berdintasun-, meritu- eta gaitasun-irizpideak ere.

Beste edozein ohar egin baino lehen, zehaztu beharra dago Lantik bezalako sozietate publikoak Euskal Funtzio Publikoaren uztailaren 6ko 6/1989 Legearen aplikazio-esparrutik kanpo daudela eta langileriarekiko duten harremana Lan-arloko Zuzenbideko arauen menpe dagoela. Era berean, lan-arloko legeriaren arabera araututako kontratuak salbuetsita daude Sektore Publikoko Kontratuei buruzko urriaren 30eko 30/2007 Legearen aplikazio-esparrutik (SPKL, 4.1.a artikulua).

Alegia, zentzu hertsian, legeriak ez du inolako publizitate-baldintzarik ezartzen.

Bestalde, sozietate publikoak Administrazioa arautzen duten printzipio konstituzional berberen menpe daudela onartzea posible izango balitz ere (besteak beste, enplegua berdintasunez lortzeko irizpidea, merituena, gaitasunena eta objektibotasunarena, EK-ko 14, 23.2 eta 103.1. artikuluetan aipatzen dira), printzipio horiek gauzatu edo bete diren baloratzeko, kontuan hartu behar dira bete nahi den lanpostua eta haren inguruko baldintzak.

Kasu honetan, kontratazioa publizitatearen baldintza zehatzaren mende ez dagoenean ere, LANTIKek aukeraketa-prozesua hasten du, enpresa kreditatu eta espezializatu baten bidez. Prozesu hori hastean, bi egunkaritan iragarkiak argitaratzen dira, eta curriculum vitaeak jasotzen dira, elkarriketak egiten dira eta, azkenik, langilea aukeratzen da.

Aipatutako aukeraketa-prozesuetan enpresa esleipendunek Lantik, SARI bidaltzen diote beharrezko dokumentazio guztia, eta gure artxiboetan ez dagoen dokumentazio gehigarria prozesuak kudeatu dituen aukeraketa-enpresak dauka.

Aipatutakoaz gain, esan beharra dago meritu- eta gaitasun-irizpideak guztiz babesturik daudela hautaketa-prozesuan laguntzen duen enpresaren txostenekin, langileek dagozkien



lanpostuak betetzeko beharrezkoak diren tituluak eta esperientzia baitituzte, eta gainerako hautagaien artetik aukeratu dira lanposturako hautagairik onenak direla ikusi delako.

Ondorioz, langileen kontratazioan zorrotasunez bete dira publizitate-, meritu- eta gaitasun-irizpideak¹.

KONTRATAZIOA

2. 2012ko ekitaldian Bizkaiko Basalan, SAK errepideetarako gatz-hornidura kontratatu zuen 105.606 euroren truke, baina ez zuen ondasunak eta zerbitzuak kontratatzeke bidezko espedientea izapidetu eta, horrenbestez, ez zituen publizitate- eta lehia-printzipioak bete.

BASALAN-EN ALEGAZIOAK

Bizkaiko Foru Aldundiko Herri Lanen Sailarekin dugun hitzarmena dela eta, neguan Bizkaiko Lurralde Historikoko errepideen mantentze-lanak egiteko gatza erosten dugu. Estatuan errepideetarako gatza kopuru handietan eros daitekeen tokirik hurbilena Zaragozako gatz-meatokia da. Prezioa monopolizatuta dago eta kopuruaren arabera ezartzen da. Ez dago hornitzailerik hurbilago. Gatza 300 kilometro baino gehiagora erosteak prezioa garestitzen du eta gainera hornidura irregularra izango litzateke, beraz, ez litzateke bideragarria izango.

3. Euskalduna Jauregia, SAK besaulkien hornidura esleitu du 589.966 euroren truke eta lizitazioa kontratugilearen profilean argitaratu du, baina ez aldizkari ofizialetan (EBAO, BAO eta BOE). Horrenbestez, ez du SPKLTBren 142. artikuluan xedatutakoa bete.

EUSKALDUNA JAUREGIA-REN ALEGAZIOAK

Palacio Euskalduna – Euskalduna Jauregia, SA merkataritzako sozietate publikoa da, Bizkaiko Foru Aldundiak sortua, Musika eta Kongresu Jauregiek eskaintzen dituzten berezitasunen barruan kongresuak eta musika-jaialdiak antolatzeko. Sozietatea Toki Araubidearen Oinarrien Legeak eta Toki Korporazioetako Zerbitzuen Araudiak arautzen du, eta merkataritza sozietate publiko gisa, Estatuko Administrazio Orokorreko Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko apirilaren 14ko 6/1997 Legeak (LEAOAFL). Definizioz, guztiz dago ordenamendu juridiko pribatuaren mendean eta araupean, aurrekontu, kontabilitate, ondare, finantza-kontrol eta kontratazioaren gaineko araudia aplikagarri den arloetan izan ezik, aipatutako legearen hamabigarren xedapen gehigarriak ezartzen duen bezala.

Hori azalduta, gure ustetan Herri Kontuen Euskal Epaitegiak adierazitako objektzioak ulertarazten du Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SA sozietateak administrazio-

¹ HKEE honi emandako dokumentazioak hautaketa enpresak proposatu dituen pertsoneri soilik egiten die erreferentzia eta honenbestez, ez da bermatu hautaketa prozesuan printzipioak bete izana.



zuzenbidea aplikatu behar duela kontratazioak egiterakoan, hau da, zentzu zabalean Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legea aplikatu behar duela (Lege horren Testu Bategina onesten duen azaroaren 14ko 3/2011 LEDan xedatutakoa, alegia). Alabaina, argitu beharra dago HKEEK aztertu duen kontratua kontratu pribatua dela (SPKLTBren 20. artikulua) Administrazio Publiko izaerarik ez duen esleipen-boteredun merkataritzako sozietate publiko batek egindako kontratua baita. Horrenbestez, eta berariazko araurik ez dagoenez, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak eta hura garatzen duten xedapenek ezarritakoari jarraiki prestatu eta esleituko da, eta administrazio-zuzenbideko edo, hala badagokio, zuzenbide pribatuko gainerako arauak modu osagarrian aplikatuko zaizkio. Ondorei eta iraungipenari dagokionean, kontratuak zuzenbide pribatuko araei jarraituko die.

SPKLTBaren 142. artikuluko 1. atalak honakoa xedatzen du: “Erregulazio harmonizatuko kontratuak badira, lizitazioa Europar Batasunaren Aldizkari Ofizialean ere iragarri beharko da, eta kasu honetan, autonomia-erkidegoko edo probintziako aldizkari ofizialetan jarritako iragarkiek ezingo dute ordeztu Estatuko Aldizkari Ofizialean argitaratu beharreko iragarkia”.

Gauzak horrela, argi utzi behar dugu kontratazio-organoak 2011ko maiatzaren 30ean hartutako erabakiaren bidez onartu zirela Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SAko erabilera anitzeko aretorako besaulkiak hornitu eta instalatzeko administrazio-kontratuaren gastua, kontratazio-espeditentea, administrazio-klausula berezien orria eta klausula teknikoen orria. Esleipenerako izapide administratiboak prozedura ireki bidez egin ziren eta irizpide ugari erabili ziren enpresa lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzak baloratzeko orduan.

Prozedura izapidetzerakoan lizitatzailleek nahieran ikusi ahal izan dute Euskalduna Jauregiaren webgunean argitaratutako informazioa, publizitate eta gardentasun printzipioak jarraitu dira prozedura osoan zehar eta hautagai guztien artean diskriminaziorik ezaren eta tratu-berdintasunaren printzipioak ere aplikatu dira bitarteko elektronikoko, informatiko zein telematikoen bidez enpresa lizitatzailleen esku jarritako informazioaren bidez. Prozesuan lau enpresak hartu zuten parte, estatuko bik eta nazioarteko beste bik, eta guztiei eman zitzaizkien kontratazio-espeditenteko agiri berberak lehia askea babesteko eta horrela orokorrean (ikuspuntu teknikitik zein ekonomikitik) eskaintzarik onena aukeratu ahal izateko.

2011ko azaroaren 18an lizitatzailleei eman beharreko informazio guztia jasotzen zuen iragarkia argitaratu zen Euskalduna Jauregia-Palacio Euskalduna, SAko webguneko kontratugilearen profila atalean. Akats administratibo baten ondorioz, ordea, ez zen iragarkia EBAOn argitaratzeko bidalketa egin aipatutako 142. artikulua eskatzen duen moduan.

Jakin badakigu Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeak jasotzen duen eta gero eta zorrotzagoa den araudiak eskatzen dituen administrazio-izapide guztiak zehatz-mehatz bete behar direla EBAOn argitaratu ez izanagatik esleipena baliogabe geratzea edo baliogabe utzi ahal izatea ekiditeko (beti ere egindako kontratuaren ezaugarrien arabera). Horrenbestez, kontratu-motak hala eskatzen duelako legeak ezartzen dituen bitarteko guztietan argitaratzen direla bermatzeko barne-mekanismoak jarriko ditugu abian.



Herri -Kontuen
Euskal Epaitegia

Tribunal Vasco
de Cuentas Públicas

III. BARNE-KONTROLERAKO SISTEMARI ETA KUDEAKETA-PROZEDUREI BURUZKO GOGOETAK

